



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-02-10

BILERA ZENBAKIA: 17

ORDUA ETA LEKUA: UDALETXEAN 7,30TAN

PARTEHARTZAILEAK: 3 EMAKUME ETA GIZONEZKO 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

2015eko plangintza orokorra zehazten aritu gara:

1. Denboraren bankuari dagokionez, apirilean aurkeztuko du taldeko kide batek gai honi buruz egindako ausnarketa bat. Honen arabera baloratuko da nola eldu gaiari eta ekintzak zehaztuko ditugu. Dena den gai hau aurrera eramateko lan handia aurreikusten da eta horretarako taldean ere gende gehiagoren inplikazioa ezinbestekoa da.

2. Herriko adinekoen izenean eskaera berezi bat jaso dugu Gizarte Zerbitzuetan, hala nola, hilean behin edo Podologia zerbitzua eskeiniko duen norbait herrira etortzea. Gai hau lantzen ari gara eta zehazten dugunean jakin araziko dugu egutegia, lekua eta ordutegia.

3. Pelikula-dokumentalen zikloa martxan jarriko da aurten ere, gizarte mailan garrantzia duten gaiak landuz. Horrela martxoan 5ean «La mujer y el agua» eskeiniko da Emakumearen egunarekin lotuz eta 19an Euskeraren gaia lantzen duenen bat (zehaztu gabe), Korrika astea aprobetxatuz. Apirilak 15ean kontsumoaren gaia landuz «Comprar, tirar, comprar» dokumentala eta 30ean indarkeri desberdinak lantzen dituen «Mariposas en el hierro» dokumentala izango ditugu ikusgai.

Saio guztiak ostegunetan egingo dira udaletxean arratsaldeko 19.00tan eta Dohain izango dira. Urtearen bigarren partean horrelako beste ziklo bat antolatzeko asmoa dago lan taldetik

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Podologoaren gaia lotu	Martxoak 10	Mertxe
Pelikulak lortu	Martxoak 10	Erkuden

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Martxoaren 10ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Bolondres taldea
- Hazkuntza taldea (grupos de crianza)